III. ERANSKINA

HAUTATUTAKO PROIEKTUAREN FITXA TEKNIKOA (PUBLIZITATEA EMATEKO)

LAGUNTZA MODALITATEA	**Teknologoa- "IKERTALENT 2026"**
PROIEKTUAREN KODEA	**T7**
TITULUA	**LEARBLUE:** Itsas aplikazioetarako material biobasatu eta biodegradagarrien azterketa
ZENTROA	**LEARTIKER**
SAILA/ZUZENDARITZA/ARLOA	Polimeroen Teknologia
IKERKETA - TALDEA	Blanca Lekube, Pablo Larreategi, Udane Astobitza, Eva Acuña
PROIEKTUKO TUTOREA(K)	Blanca Lekube
PROIEKTUAREN LABURPENA	LEARBLUE proiektuak arrantza eta akuikultura sektoreetan aplikatzeko material biobasatu eta biodegradagarrien potentziala aztertzen du, plastiko konbentzionalek itsas ekosistemetan duten ingurumen-inpaktua murrizteko helburuarekin. Proiektuak material horien portaera eta biodegradagarritasuna baldintza errealetan ebaluatzen ditu, baita jatorri fosileko materialen ordezko gisa duten egokitasuna ere. Horretarako, itsas ingurunean biodegradagarritasun-saiakuntzak egiten dira, materialen portaeran eragina duten faktoreak aztertuz, hala nola konposizioa, geometria edo fabrikazio-prozesua. Gainera, datuen analisia eta *machine learning* teknikak erabiltzen dira material berrien diseinua errazteko eta itsas aplikazioetarako produktu jasangarri berriak garatzen laguntzeko. Proiektuaren emaitzek sektorearentzat baliagarria izango den ezagutza zientifiko eta teknologikoa sortuko dute, plastiko konbentzionalen ordez alternatiba jasangarriagoak erabiltzea sustatuz eta itsas ingurunearekiko errespetutsuagoa den ekonomia urdinaren garapena bultzatuz.
BESTELAKO INFORMAZIOA	**Sartzeko titulazioak:** Ingeniaritza Kimikoa, Kimika edo antzeko gradua/lizentziatura. Itsas ingurunearekin, akuikulturarekin edo jasangarritasunarekin lotutako prestakuntza osagarria baloratuko da. **Beharrezko profila:** Material jasangarrietan, itsas ingurunean eta datuen analisian interesa duen pertsona. Laborategiko lana egiteko gaitasuna, ikerketa esperimentalerako motibazioa eta datuen tratamendu eta analisi tresnetan trebatzeko interesa baloratuko dira. **Eginkizun nagusiak:** Arrantza eta akuikultura sektorearen beharren azterketan parte hartzea; material biobasatu eta biodegradagarrien ezaugarritzea eta biodegradagarritasun entseguak egitea itsas baldintzetan; prozesaketa berritzaileen garapenean laguntzea; datuen azterketa eta interpretazioa egitea; eta *machine learning* tresnen bidez biodegradagarritasunaren iragarpen-ereduak garatzen parte hartzea. **Eskainitako prestakuntza:** Material biobasatu eta biodegradagarrien ikerketan, biodegradagarritasun saiakeretan, materialen ezaugarritzean, prozesaketa teknologietan eta datu analisian prestakuntza praktikoa. Prestakuntza Polimeroen Teknologia arloko diziplina anitzeko talde baten barruan egingo da, tutorearen eta ikerketa-taldearen jarraipen etengabearekin.
HARREMANETARAKO DATUAK	Blanca Lekube (blekube@leartiker.com)